

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu maiatzaren 7tik 13ra bitarteko asterako.

Astelehena, 2018.eko maiatzak 7

DNA - Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdiak jarraituko du aste honetan, ikuskizun hauen eskutik: "Gala", asteazken eta ostegunean, Barañain auditorioan; "Sormen-prozesuak dokumentatzen", asteazkenean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian; "Cuerpo - Documento / Serie 1", Estitxu Arroyo Sánchezena, ostiralean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian; "Conferencia bailada" (1 zatia eta 2 zatia), Toni Jodarren eskutik, ostiralean Iruñeko Civicanean eta larunbatean Aranguren Ibarreko Kultura Etxean; "Gustavia", ostiralean, Gayarre antzokian; "Bolero", Jesús Rubio Gamorena, ostiralean, Noaingo Kultura Zentroan; "Calling Tree" performance ibiltaria, larunbatean, Zaldi Zuriaren zokoan; "Errata Natural", "Kiroiak" eta "Bolero", larunbatean Zangozako Kale Nagusian eta igandean Agoizko Nafarroa Behereko plazan; eta "Ocupación Ciudadela", larunbatean, Iruñeko Zitudelatan.

Hitzaldiei dagokienez, ondokoak eskainiko ditu Nafarroako Liburutegiak: "Patricia Almarcegui: voces de mujer en Irán", asteartean, eta "Buscando la isla del tesoro", ostegunean. Eta ondokoa, Nafarroako Museoak: "Poesía en el tiempo de la Escuela Vasca (1960-1968)", asteazkenean.

Nafarroako Liburutegiak "Ongi etorri ipuinetara" haurrentzako aisialdiko jarduera ere eskainiko du, euskaraz, asteazkenean.

Zineak hauek ekarriko ditu Nafarroako Filmotekara: "Paisajes transformados", asteazkenean; "Milou en mayo", ostegunean, eta



Gayarre Antzokian eskainiko den "Gustavia" antzezlanaren irudietako bat

“Pasaporte para Pimlico”, ostiralean.

Musikak, aldiz, bi hitzordu hauek ekarriko ditu Baluartera: Carmen Yepes, asteartean, eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, ostegun eta ostiralean.

Uharteko Arte Garaikideko Zentroan taller hauek egingo dira: “Zeharkako estetikak. Aisialdiko ekosistemak”, “Komisariotza- ikerketaren inguruko egoitza” eta “Kartografia hedatua”.

Erakusketei dagokienez, ondokoak daude oraindik ikusgai: “Gamazadarem 125. urteurrena”, “Incurvar”, “Grupo Danok. 1966-1967” eta “En abierto – Zabalik: NUParen 30 urteei buruzko erakusketa”

Bukatzeko, bisita gidatuak antolatu dira "Danok taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara eta Iruñeko katedraleko klaustroaren lanetara. Eta aurrera darrai Museoen Zerbitzuak bultzatutako “Pasaportea: Museatu! eta bidaiatu” kanpainak.

[Esteka honetan](#) duzu kultur [programazio osoa](#):